

Goi

Goierritarra aldizkaria

382. zenbakia 2010eko ekainak 4



**ARKAITZ
IURRITA
MENDIZALEA**

ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN ALDE



ARGI
OPTIKA

zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarritzko osagaia

EMW

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain
T 943 88 31 10 www.argioptika.com

PRADA *Libertine Ferragamo* CXTÉ ROMEO GIGLI



efektore



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:
I. Fdez Or naburu Dra.
 (Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
 ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitisa, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

berrikuntzak // bainuak // sukaldeak // zeramikak // hidromasajea // gremioak // proiektuak



dekorazioa // diseinua // irisgarritasuna // aholkularitza teknikoak // laguntzen bideratzea

Barandiaran
 ZERAMIKAK
 Beasain
 senpere 7
 943 887 972
www.Barandiaranzeramikak.com



Etor Mendia

"Izarren liga" delako hori buka-tu omen dek... Ez ote zegok bada beste kirolrik? Zer egin behar diagu kirolariok orain? Zerk sorreraziko zizkiguk zirra-rak uda partean?

Zirrara sortu ezean txarra ez bapatean gure gaitasun fisi-koak hobetzea, inungo neke eta esfortzurik gabe gainera. Hori egiten omen diken tra-mankulu berria ere asmatu omen die. Etzekiat kirola egite-ko beharrezko konplementua izango ote den, baina pul-tometroak bainan gehiago ikusten dizkiat eskumuturretan kolore desberdinetako "powerbalance" direlako hoi-ek. Eta nik nere euskorkerian jarraitzen diat, asteen 5-6 egunetan entrenatzen bihotz taupaden erritmoan, eta zertarako eta jadanik daukadanari eusten saiatzeko. Tipo xelebrea ote neok horregatik? Ez diat inoiz sinetsi izan esfortzurik gabe-ko lorpenetan...

Esfortzuaz ari neokelarik datorren hilabeteko astebu-ruak zetorziak burura, gure triatloi denboraldia ere abian bait diagu. Igeriketa, txirrindua, korrika... 3 froga desber-

Posible ote huke entrenatu gabe eskumuturreko bat jantzita triatleta izatea?

Nik badaezpadan nerearekin jarraituko diat.

din eta "gogor"-ez (gustoko bidean aldaparik ez!) osaturi-ko kirol ederra. Posible ote huke entrenatu gabe eskumu-turreko bat jantzita triatleta izatea? Nik badaezpadan nere-arekin jarraituko diat, etzaidak guztiz gaizki joaten eta.

Eta triatloiarekin ausartzen ez dituenak ere ez zeuka-tek aitzakiarik, gurean izango dek eta zer eginik gogorik zeukakenarentzat. Eta beste gauza bat: futboleak 22 lagu-nek egiten die kirola, eta beste milaka batzuk zarata atera besterik ez. Baina mendiko frogetan, txirrindularitzan,... partehartzaile andanaz gain ikusle askok ere kirola egiten die modu aktiboan: Aizkorri puntara maratonia ikustera igo deken, bizikleta hartuta lasterketa pasako deken portu hortara igotzen deken...

Hi, ba azkenean agian izango dek futbolaz haratago beste kirol aukerarik ere!



Igor Bueno

Hi Etor, inoiz okurritu al zaik helikotero txiki bat pilotatzen ikasteko ikastarorenbat egitea? Nei hoixe bururatu etzaiak-ba oain! Etzak parre egin, etzak parre egin. Informatuko neok, internet bidez, nola ez, akaso "ipad" delako tramankulu berri zoragarri horren bidez, eta kontatuko diat...

Eskumuturreko "powerbalance" hoi ze arraio dekela esan dek? Ze esatek! Gaitasun fisikoak areagotzen dizkike-la? Gaitzak ere uxatzen dizkikela? Eta hoi sinistu egin behar al diau? Eonai! Zeren akaso puntzionatu egingo dik. Bai ba! Lendakarik ibilitzen omen dik, eta gezurrean lau urtez aginduko dik! Sinistea ere, ene! Dena marketing kon-tua dek motel, publizitatea, jakin ezertarako ez duela balio, eta balio duela sinistu diau, marka dek geo e! Lezioa ikasi-ko ote diau...

Hiru kirolak batea eta segidan egitea, hori bai dekela dibertigarria.

Horra, triatloiaren xarma!

Triatloia aipatu dekela, aitorpen txiki bat egin behar diat. Itsasoko gatzak eta neoprenozko trajeak flotatzen laguntzen ditekela, bestela uste al dek ur hoita sartuko neokela ni ala? Gehio ere esango diat. Bizikletan errepiden gutxi ikusiko nauk ni, mendia gehio jungo baineok, denbo-ra erdin distantzi doblea egitearen aitzakikin. Eta azkenik, jakin ezak korrika ibiltzek ere etziakela grazia haundirik egiten. Baño hik ere badakik, hiruak batea eta segidan egi-tea, hori bai dekela dibertigarria. Horra, triatloiaren xarma! Aer aurtin zein itsasotan kointziditzen diaun.

Atzea beida egoterik etzeok, Aizkorriko mendi maratonia elurretan pasa berri diau eta kontuatzeko uda begibistan! Ehun Milak proba bazetorrek, Quebrantahuesosa ere hor zeok, Behobia-Donostiarako inskripzioekin hasi dituk, zer gehio nahi dek?

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama,
Itsasondo eta
Ligorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goi
Goierriarra aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 757
Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Erabakitzeke gaitasunak egiten gaitu
pertsona, eta bidea norabide berean
egitea erabakitzeak egiten du
pertsona multzoa herri.



Jon Ordoñez

Lekukoa eta hitza hartzea aukeran

Bi urte pasa dira Nazioen Mundua izenarekin Idiazabaldik autodeterminazioaren aldeko iritzi korrante bat iritsi zitzaigunetik. Neronek ez nuen hasiera batean garbi herri-kirolak eta dantza autodeterminazioarekin uztartzen zituen mugimendu horren helburua eta izaera. Aldarrikapena, Eskoziarako bidaia... "Ideologia desberdinetako jendeak elkarrekin egin dezakegun bidea elkarrekin egin nahi dugu; bidegurutze batean agurtu behar badugu ere, bidegurutze horretara arte bat egiteko nahia da", azaldu zuen ekimenaren antolatzaileetako batek. Atzera begira bi urte hauetan autodeterminazioaren aldeko taldeak egin duen bidea izugarria izan da, eta bere garaian 700 idiazabaldarrek babesa eskaini zioten moduan, orain goierritarro iritsi zaigu gure jarrera agertzeko aukera.

Orain dela bi aste Beasaingo Igartza jauregian Goierriko hainbat politikari, ordezkari eta eragilek sinatu zuten agiria eta elkarrekin atera zuten argazkia oso adierazgarria izan zen. "Litekeena da Igartzan elkartu garenok Euskal Herriarentzat proiektu, egitura nahiz etorkizun ezberdinak nahi izatea. Baina demokrazian oinarritutako printzipio baten aldeko jarrerak ekarri gaitu hona, giza eskubide zibil eta politiko guztiak errespetatuz, autodeterminazioaren edo erabakitzeke eskubidearen aldekoak, hain zuzen ere". Demokraziaren oinarrietara jo dute Igartzako adierazpenaren bultzatzaileek testua osatzeko, eta sinplea bezain argia da aldarrikapena. Horiei eta Nazioen Mundua ekimena abiatu zutenei eskertu behar zaie, Euskal Herrian une zailak bizi diren honetan, ausardiaz jokatu eta, sikiera elkarrekin metro batzuk gehiago egin ahal izateko, artasoroaren gainetik burua atera izana. Pasalanga du izena Idiazabalaren jatorria duen eta eskualde osora zabaltzen ari den Goierriko autodeterminazioaren aldeko ekimenak, eta orduan eta gehiagok eman horren aldeko pausoa, orduan eta ozenagoa eta sendagoa izango da Igartzan irakurri zen agirian jasotzen diren hitzak izango duten oihartzuna eta esanahia.

Idiazabaldik Beasainera egin zuen salto Pasalanga ekimenak maiatzaren 22an, baina benetako saltoa ekainaren 5ean eman beharko du, Larraitzen, eguerdian. Autodeterminazioa giza-eskubideen zerrendan dagoen eskubidea da, eskubide horien sailkapenean, hirugarren mailan; bakean bizitzeko eskubidearekin eta bizi kalitatea izateko eskubidearekin batera sailkatzen da. Lehen mailako giza eskubideak XVIII. mendean sortu ziren, eta bigarren mailakoak, XIX.ean. Autodeterminazioarena, berriz, XX. mendean sortu ziren eskubide horietako bat da, eta aurreko mailetako eskubideekin gertatu zen bezala, garrantzitsua da lehenbailehen horri heldu eta errotzea, ez dadin hustu pixkanaka. Globalizazioaren garaian, mundu osoan gizartean parte hartu eta etorkizunean eragiteko aukera geroz eta murriztagoa da; berdin du finantza sistemaz ari edo elikaduraz. Erabakitzeke gaitasunak egiten gaitu pertsona, eta bidea norabide berean egitea erabakitzeak egiten du pertsona multzoa herri.

Euskal Herria nazio txikia da, eta ez da, zorionez, homogeneoa. Badira, ordea, gatazka bat tartean izan arren, herriaren gehiengoaren onespina duten zenbait gai. Euskal Herriko kirol selekzio ofizial baten aldarrikapenak, esate baterako, alderdi eta ideologiengainetik bere inguruan iritzi asko eta desberdinak elkartzea lortu du azken urteetan, eta adibide hori jarraituz, horrek izan beharko luke autodeterminazioaren aldekoek aurrerantzean egin beharreko bidea. Autodeterminazioaren aldeko ekimena, ordea, ezin da utzi azken bi urteetan mugimendua bizirik eta indarturik mantendu dutenen eskuetan; ezta Igartzako adierazpena sinatu zutenengan. Autodeterminazio eskubideak, hain zuzen, herriaren hitza jaso eta errespetatu behar dela aldarrikatzen du, eta denok garenez herria, eta gure eskubideak denoi dagozkigunez, herriari dagokio ekainaren 5etik aurrera urte hauetan eta, batez ere, azken bi hilabetetan herriari aukera hau emateko lanean aritu direnen lekukoa hartzea, Igartzako adierazpena oinarri hartuz, autodeterminazioaren alde sinatuz.



kutxa

Udaberria dela eta (II)



Zuhaitz iraunkorrak

Aurreko aldizkarian zuhaitz hostozabal desberdinak eza-gutzeko hemen gako dikotomikoa eman genuen. Bigarren atal honetako pausak jarraituz, zuhaitz iraunkorrak ezagutzen lagundu nahi duzuegu. Hostoen ezaugarriei arreta jarri eta beheko taulan ezaugarri horien arrastoa jarraituz, aurrean duzun zuhaitza zein motatakoa den jakin ahal izango duzu. Egin ezazu aproba!

1 Ezkata itxurako hosto txikiak. Adarrak plano batean ezarriak.

2 Hosto azikularrak, orratz itxurakoak, eta linealak. 2

3 Binaka edo talde handiagoetan multzokatutako hostoak. 3

4 Hostoak banan-banan adarrean zehar sakabanatuta. 4

5 Hosto bigunak, seinaka edo talde handiagoetan multzokatuta. Udazkenean zimeldu eta erori egiten dira.

6 Binaka edo hirunaka multzokatutako hostoak. 4

7 Hirunaka multzokatutako hostoak.

8 Binaka multzokatutako hostoak. 5

9 8-15 cm luzerako hostoak.

10 Hosto luzeagoak, 25 cm arte.

11 Hosto txiki eta gogorrak. 7

12 Hosto bigunak, zapalak eta bi lerrotan kokatuak adartxoetan zehar.

13 Azpia berde argi kolorekoa duten hostoak. Erretxina usaintsuz beteriko maskuiluak dituen azala.

14 Kolore berdineko hostoak, berde ilunak. Gabonetako zuhaitza.

▶▶▶▶ LAWSON
ALTZIFREA



▶▶▶▶ ALERTZEA



▶▶▶▶ INTSINIS
PINUA



▶▶▶▶ LARIZIO PINUA



▶▶▶▶ ITSAS PINUA



▶▶▶▶ HAGINA



▶▶▶▶ DOUGLAS IZEIA



▶▶▶▶ IZEI GORRIA



JAKIN BEHARREKOAK

Indigenen aurkako presa. Etiopiako Omo ibaian presa hidroelektriko handia egin nahi dute baina honek 200.000 indigena lurrik eta bizimodurik gabe utziko lituzke. Survival International kanpo inbertitzaileak informatu nahi ditu eraikuntza honetan parte ez hartzeko.

'Zelula' sintetikoa sortu du Craig Venterren taldeak. Berez bakarrik genoma da sintetikoa. Mycoplasma mycoides bakteriari bere genoma kendu diote eta ondoren genoma sintetikoa txertatu. berri honek eztabaida piztu du alor ezberdinetan, bioetika, filosofia... Zertarako? zein helbururekin? beharrezkoa al da? ondorioak?

Okariz-Munaingo Hariztia, Entzia (Araba).

Baso zahar honen barruan abiatuz gero, ehun urtetik gorako haritzak aurkituko ditugu. Bioaniztasun handiko basoan zehar ibilaldia proposatu nahi dizuegu, non landare zein animalia (gehienetan txikiak) ugari-ekin topo egin dezakegun.

Ozeano Atlantikoan zabor kontzentrazio handiko eremua aurkitu dute Itsas Heziketarako Erakundeko ikerlariak. Iparraldean, 200.000 hondakin pieza kilometro karratuko kontzentrazioa duen eremua dago. Ozeano Pazifikoan horrelako zabor orbaina ezagutzen zen lehendik.

 **landarlan**
ingurumen taldea

Landarlan taldeak egindako orrialdea. Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo albisternen bat bidali nahi baduzu:

☎ 943161244 landarlan@yahoo.es

‘-ki’ gora eta ‘-ki’ behera

Maizpide euskaltegia

“Joxerrak sakon*ki* aztertu zuen egoera”

Zuzena ote dugu goiko esaldia? Bada, belarrian aparteko minik egiten ez digun arren, ez da oso txukuna! Cervantesen hizkuntzako “-mente” bukaera duten adjektiboak mailegatzeko erabili izan dugu euskaraz “-ki” hori, baina garbi dago askotan hori gabe behar duela!

- ✗ Joxerrak sakon*ki* aztertu zuen egoera. (desegokia)
- ✓ Joxerrak **sakon** aztertu zuen egoera. (egokia)
- ✗ Gauzak legalki egitea gustatzen omen zitzaion Gartzoni. (desegokia)
- ✓ Gauzak **legez** egitea gustatzen omen zitzaion Gartzoni. (egokia)
- ✓ Gauzak **lege barruan** egitea gustatzen omen zitzaion Gartzoni. (egokia)
- ✗ Ez dakit zebazki zenbat platerkada babarrun jan dituen gure Ibonek. (desegokia)
- ✓ Ez dakit **zebatz-mebatz** zenbat platerkada babarrun jan dituen gure Ibonek. (egokia)
- ✗ Normalki bi platerkada jaten ditu; gaur, ordea, hiru “sartu” ditu. (desegokia)
- ✓ **Normalean (eskuarki)** bi platerkada jaten ditu; gaur, ordea, hiru “sartu” ditu. (egokia)
- ✗ Ariketa hura logikoki egin izan balu, beste oilar batek egingo zion kukurruku! (desegokia)
- ✓ Ariketa hura **modu logikoan (era logikoan)** egin izan balu, beste oilar batek egingo zion kukurruku! (egokia)

Erne, lagunok, goikoa ikusita ez gaitezen beste muturrera joan! Izan ere, modu-aditzondoak sortzeko maiz erabili dugu!

- ✓ **Poliki** egin du azterketa gure alaba Maddik. (egokia)
- ✓ **Ederki**, Manuel, **ederki!** (egokia)

- ✓ Baigorriko gure lebegusu Joanesek zer moduz den galdetzean, “**biziki** untsa” erantzuten digu. (egokia)
- ✓ Esan **ozenki**, txo! (egokia)
- ✓ Errioxako Joxerrik **ozen** hitz egiten du gebienetan! (egokia)
- ✓ Errioxako Joxerrik **ozenki** hitz egiten du gebienetan! (egokia)
- ✓ Ardoa oso gustuko dut; **bereziki** Arabako Errioxakoa! (egokia)
- ✓ **Emeki-emeki** burbildu zitzaion katarra katemeari. (egokia)
- ✓ **Bortizki** eman zion sabelean gaizkileari. (egokia)
- ✓ Ariketa **gaizki** eginez gero, akabo; **ongi** (ondo) egiten baduzu, primeran! (egokia)
- ✓ **Hobeki** (bobeto) egin ezean, jai dugu! (egokia)

- Gogoratu, bestalde, jakia adierazteko ere erabiltzen dugula:
- ✓ Gustuko al duk **odolkia**, Hilario? (egokia)
 - ✓ **Abatekia** eta **txerrikia** izango dugu bazkaltzeko! (egokia)



Antonio katutxoak ozen adierazi dio Koxmeri zer nahi duen!

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Odolkia jatera gonbidatu zuen Koxme txerritxoak Antonio katutxoak
2. Arnasa sakon hartu eta onartu egin zuen Antoniok
3. Poliki afaldu omen zuten Antoniok eta Koxmek, baina ez dakigu zehatz-mehatz zenbat odolki jan zituzten!

OHARRA: denak zuzenak, arraioa!

● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04

TOLARE

SAGARDOTEGIA

☎ 943 18 01 19 **ATAUN**

Sagardotegi
edo erretegi
menua
aukeran

Sagardo
botilak salgai



Goierrit Hartxo

Goierriko haurren aldizkaria 27. zenbakia 2010eko ekaina



Neska pilotariak

Palan Gipuzkoako txapeldun
dira ataundarrak



Maite Goikoetxea, Ainitze Goikoetxea eta Ziortza Barandiaran ataundarrak

Pilotari txapeldunak

Goierrihartzok pozik dago, ikasturtea bukatzen ari da eta laster oporrak hartuko dituelako, beste haur eta gaztetxoek bezala. Ikasturte osoan gogor lan egin behar izan bada ere, merezitako oporrak gain-gainean daude.

Matekamatika, ingelera, euskara... liburu artean nahiko lan egiteaz gain, kirola egiteko aukera izaten dute hirugarren mailatik gorakoek. Goierrihartzok jakin duenez, ederki gozatu duzue kirol ezberdinak eginez. Askok gainera, txapelak ere lortu dituzte. Tartean dira, Ataungo

Joxemiel Barandiaran herri eskolako hiru neska: Ziortza Barandiaran, Ainitze Goikoetxea eta Maite Goikoetxea, Gipuzkoako txapeldun dira, palan, alebin mailan. Eskuz ere finalean izan dira Ainitze eta Maite, baina bigarren postuarekin gelditu dira. Goierrihartzok grabagailua eta argazki makina hartu eta Ataungo Auzoeta kiroldegira joan da hiru neskei elkarrizketatxo bat egitera. 10 eta 11 urte dituzte.

Txapela lortu duzue beraz.

Ziortza: Txapelik ez digute eman, krisia dela eta.

Kopa eta dominak eman dizkizue. Domina urrezkoa?

Maite: Urrez pintatutakoa.

Ziortza: Kopa, eskolan daukagu eta medaila etxean.

Zein talderen auka jokatu zenu-ten finala?

Ainitze: Asteasuren aurka.

Ziortza: Aian jokatu genuen.

Maite: 20-14 irabazi genuen.

Urduri al zeundeten?

Maite: Hasieran bai pixka bat.

Hiruko taldea zarete. Nola jokatzen duzue?

Maite: Bost tantora aldatu egiten gara.

Zenbatera izaten dira partiduak?

Ainitze: 20ra.

Zer moduzkoak ziren Asteasuko aurkariak?

Ainitze: Atzelaria ona zen. Baina partiduaren erdialdera nekatu egin zen. Atzelaria nekatu zenean, atzera eta atzera botatzen genuen pelota.

Zuetan atzean nork jokatzen du?

Maite: Ainitzek, ezkerre da eta.

Abantaila al da hori?

Ziortza: Bai, baina konturatzen direnean eskubira botatzen hasten dira.

Eta eskubiarekin zer moduz moldatzen zara Ainitze?

Ainitze: Ondo.

Ziortza: Entrenatzaileak esaten dio izugarrizko beldur aurpegia jartzen duela.

Eskubiak garenok, alderantziz; ezkerrera botatzen digutenean jartzen dugu beldur aurpegia.

Ziortza: hori ba!

Eskuz ere aritu zarete, Maite eta Ainitze. Zer moduz eskuz?

Ainitze: Ondo. Bigarren gelditu ginen. Errezilen aurka galdu genuen.

Finalera iritsi aurretik partidu asko jokatu al dituzue?

Maite: Bai, otsailean hasi ginen.

Eskuz, takoekin jokatzen al duzue?

Ainitze: Guk ez, baina mutilek bai.

Nolako pelotarekin jokatzen duzue palan?

Ainitze: Gomazkoarekin.

Bixi horietakoa?

Maite: Ez, motela.

Pelota gustatzen al zaizue ala beste kirol batzuk ere bai?

Ziortza: laz izena eman genuen. Gehiagok ere eman zuten izena baina utzi egin zuten. Eta guk segitu egin genuen.



Ziortza Barandiaran, Ainitze Goikoetxea eta Maite Goikoetxea.

Ainitze: Niri futbola ere gustatzen zait.

Ziortza: Niri txirrindularitza. Txirrindularitzan Gipuzkoako txapelketan, bigarrena izan naiz.

Zein pelotari gustatzen zaizu Ainitze?

Irujo.



Gipuzkoako txapeldun dira, palan, alebin mailan. Eskuz ere finalean izan dira Ainitze eta Maite, baina bigarren postuarekin gelditu dira.



Ordenatu argazkia

1.=

2.=

3.=

4.=



a



b



c



d



Zangozikin

Autorea: Koldo Izagirre

Ilustratzailea: Antton Olariaga

Argitaletxea: Igela

Orrialde kopurua: 28

Beste inor ez dabilen eguerdi sargorietan etorkin mordoa doa herriko plazara, kabinatik jaioterrira deitzeko. Plaza hartan bertan txingoan jolasten ibiltzen den Zangozikin haurrak dei bakoitzeko kontu bat entzuten du: urliak dio arkitektoaren bulegoan diharduela, morroi soila izanik; sandiak dio ...; berendiak dio... Banan bana herrialde bat, bazterreko bizimodu bat eta gezur zuri bat. Irudiaren eta testuaren artean osatzen da kontakizuna, testuak hitz hutsa dio, irudiak hitzen atzean dagoena islatzen du.

ZER IRAKURRI?

*Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteko
Irakurketa Mintegia*



Lurra, Kroko!

Autorea: Jo Lodge

Ilustratzailea: Jo Lodge

Itzultzailea: Iñaki Zubeldia


Argitaletxea: Ibaizabal

Orrialde kopurua: 18

Gaur gaurkoz, formatu txikian Kroko protagonista duten 12 liburu atera dituzte, formatu handian bi etxe tolesgarri eta hiru "narrazio" album Kroko eta lagunak (2008), Krokoren bidaia (2009) eta kaleratu berria den Lurra, Korko! Aurreko lan guztiak eta azken biak bereizi behar dira ordea, jolasteko bi era desberdin dira-eta. Aurrekoetan haurraren inplikazioa bilatzen da galderak eta tolesgarriak altxatzen, baina azken bi hauetan, haurraren eskuak geldik egotera behartu dira. Bi urtetik aurrera.


Letra zopa

Ondoko letra zopan aurki itzazu
7 lanbide.



B	U	Q	I	H	N	T	L	U	A
A	K	A	Z	E	T	A	R	I	A
S	D	A	O	Z	R	R	E	R	I
E	S	E	R	R	E	O	D	A	R
R	A	L	P	I	D	U	A	K	A
R	J	C	O	L	A	I	L	A	K
I	K	L	R	U	I	Z	Z	S	I
T	I	N	A	R	R	A	A	L	R
A	U	Z	L	K	A	E	V	E	T
R	S	A	H	I	D	U	P	A	K
R	L	O	K	I	N	A	B	A	E
A	U	K	I	D	E	M	U	E	L
E	R	A	T	A	D	N	S	I	E

Elektrikaria
Irakaslea
Kazetaria
Dendaria
Okina
Baserritarra
Medikua



Osatu irudia





Goierritarrak erabakitze- eskubidearen alde

Ekainaren 5ean, 'Goierri autode-terminaziorantz' leloa aldarrikatuko dute Larraitzen, Euskal Herriaren erabakitze- eskubidearen alde dauden hainbat eta hainbat goierritarrek, maiatzaren 22an Beasaingo Igartzan iritzi ezberdineko 36 goierritarrek egin zuten bezala. Idiazabaldik Goierri-za zabaldu da ekimena.

Lehenengo sinatzaileen zerrenda

Jon Agirre	Txaro Hurtado
Joxe Ramon Agirre 'Marron'	Asier Imaz
Juan Joxe Agirre	Marije Intsausti
Joanes Aierbe	Gurutze Irizar
Karmele Aierbe	Joxepi Jauregi
Patxi Aierbe 'Koli'	Miel Mari Jauregi(Altzo)
Dionisio Amundarain	Mikel Leunda
Urtzi Arrondo	Iker Markinez
Joxe Migel Azurmendi	Xabier Mendiguren
Elias Arrese	Ñaki Murua
Fermin Arrese	Markel Olano
Josetxo Arrese	Axier Oyarbide
Iban Asenjo	Aitor Sarriegi
Xabier Barandiaran	Andoni Sarriegi
Xanti Enparantza	Axier Sarriegi
Juan Inazio Galdos	Jokin Telleria
Begoña Garcia	Joxe Mari Telleria
Jon Gorrotxategi	Jon Urdangarin



Igartzako manifestua

Hemen bildu garenok, eguneroko itxituretatik irten eta langa pasatzeko erabaki sakona hartu dugu. Txindokiren magaleraino heldu nahi dugu elkarrekin; Larraitz topaleku izan dadin. Litekeena da Igartzan elkartu garenok Euskal Herriarentzat proiektu, egitura nahiz etorkizun ezberdinak nahi izatea. Baina demokrazian oinarritutako printzipio baten aldeko jarrerak ekarri gaitu hona, giza eskubide zibil eta politiko guztiak errespetatuz, autodeterminazioaren edo erabakitzeko eskubidearen aldekoak, hain zuzen ere.

Mezu hau gizarteratzea, joera eta ideologia ezberdineko elkarrekin egin beharreko bidea dela uste dugu, harik eta bide horrek erabakitzeko eskubidearen bidegurutzeraino eramaten gaituen arte, behintzat.

Horregatik guztiagatik, ondokoa aldarrikatzen dugu:

- Euskal Herria nazio naturala da.
- Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea du.
- Euskal herritarrok dugu autodeterminatzeko eskubidea.
- Eskubide demokratiko unibertsala denez, Euskal Herrian eta nazioartean eskubide horren eskaera egingo dugu.

Hala zabaldu eta jakinarazten dugu, gaur, Beasaingo Igartzan, 2010eko maiatzaren 22an.



Iker Markinez

Garrantzia izugarria dauka ekimen honek. Betidanik gertutik jarraitu izan dut mugimendu hau. Azken urteetan ez nuen ikusten inongo aukerarik. Nik neukan ideiarekin eta alderdi politikoek ikusten duten ideia horrekin ez nindoan bat. Ematen zuen, baten alde jarritz gero, besteen aurka zeundela. Bestetik nik uste dut, sentimendu bat badagoela eta sentimendu horretatik, eskubide bat ere badela eta heldu beharra dagoela. Idiazabalen eduki zuten ideia izugarria iruditu zitzaidan, erabat bolkatuta egon naiz. Gure ametsa izan da, utopikotzat hartu izan gaituzte honetan pentsatzen genuenak eta ikusten dugu aurrera doala.



Jon Urdangarin

Ekimen polita iruditzen zait. Musika eta kirola askotan uztartzea zaila da baina kirolarekin hasi zena beste arlo batzuetara zabaltzea lortzen bada, ondo. Ekimen honetarako egin duten kantuan hartu dut parte eta hori dela eta sartu naute hemen. Dena den, hemen bildu garenon argazkia oso polita da eta hau hazten bada, askoz ere hobeto.



Gurutze Irizar

Niri deitu zidatenean eta hau egiteko zirela komentatu zidatenean, oso ondo iruditu zitzaidan, pentsatzen baitut bultzadak eman behar direla gauden egoeratik irtetzen saiatzeko. Oso ondo iruditu zitzaidan eta ez nuen dudarik izan nire atxikimendua emateko. Argazki polita iruditu zait, modu askotako jendea biltzea interesgarria baita. Larraitzeraino joango gara eta ea hortik aurrera ere zer egin dezakegun denon artean.



Markel Olano

Bi arrazoi daude ekimen honekin bat egiteko. Lehenengoa, ekimenaren beraren oinarria. Eta motibazioa. Erabakitze esku-bidea autodeterminazioaren inguruan, jendean biltzea, oro har, eta nik uste dut hori


dela bidea hemendik aurrera. Arlo politikotik helburu hori barneratu beharra daukagu eta elkarlan bat egin beharra daukagu horren inguruan. Lehenengoa beraz, edukia bera da, oso ondo datorrela gaur egun bizi dugun egoera honetara. Bigarrenengoa da, herri ekimena dela. Herritarrengandik sortutakoa da, herritarren arteko antolaketa bat eta nik uste dut, orain arte erabakitze eskubidearen garapena egiteko eduki dugun estrategia ez dela egokia izan, arlo politikotik eta instituzionaletik bakarrik egin delako. Hor egon behar da herri dinamika bat eta indar bat.



Juan Ignazio Galdos

Erabakitze esku-bidearen alde beti egon gara. Hori guretzat giltzarria da, oinarri-oinarriko gauza bat. Pentsatzen dugu, erabakitze eskubide horren mugari garrantzitsu bat dela, eta abertzaleen artean jarri

beharrekoa dela, giza eskubideen defentsa, bizitzaren balioa. Pentsatzen dugu adierazpen honetan jasota dagoela eta pentsatu nahi dugu baita ere, etorkizuna ere ildo horretatik landuko dela. Guk, erabakitze eskubideari garrantzia handia ematen diogu, baina baita ere, erabakitze eskubide hori non oinarritzen den: pertsonen arteko errespetoan, bizitza eskubidean, eta nolabait, giza eskubide guztien errespetuan. Nik uste dut hori jasotzen dela adierazpen honetan eta guk, gauza natural bat bezala egin dugu bat.



Goierriko Autodeterminazio edo Erabakitze Eskubidearen Aldeko Ekimenak, manifestu baten bidez atxikimendu kanpaina bat jarriko du abian gai hau jendartera gerturatzeko asmoz. Horretarako lehen aukera herritar Ekimenak bere burua aurkeztuko duen egunean izango da, hau da, datorren ekainaren 5ean, larunbata, eguerdiko 12etan Txindokiren magalean, Larraitzen. “Bertan, langa pasatzeko beharra ikusten dugun jendeak egingo dugu topo, herri, adin, joera eta sentsibiltate ezberdinetako jendeak”, diote Autodeterminazio Eskubidearen Aldeko Ekimenak.

Era honetan, Igartzan elkartu zirenak abiapuntu hartuta, autodeterminazio eskubidearen alde dauden goierritarrak bildu nahi dituzte antolatzaileek Larraitzen, ondorengo helburu honekin: “ados gauden horretan bat egin eta ahalik eta biderik luzeena egitea. Horretarako ohitura edo joera handirik ez zegoela ikusten genuen, alegia, bata Abaltzisketara joatekotan bada, eta bestea, berriz, Txindokira, bakoitza bere autoan joan beharrean

ez dakigula edo ez genekiela elkarrekin Larraitzeraino, sikiera, joaten. Eta guk horri buelta eman nahirik esaten genuen eta esaten dugu: goazen Larraitza elkarrekin, behintzat, eta gero geroakoak”, esan zuten Igartzako aurkezpenean. Ahalik eta argazkirik jendetsuena eta anitzena atera nahi da Txindoki azpian.

Egitaraua

Beraz, Larraitzeraino joateko hitzordua jarria dago: ekainak 5, eguerdiko 12etan. ‘Goierri autodeterminaziorantz’ lelopean, hona hemen prestatu duten egitaraua:

- ✓ Ongi etorria bertsolariekin.
- ✓ Ekimenaren kantaren aurkezpena egileekin zuzenean.
- ✓ Logoaren aurkezpena.
- ✓ Dantzarien agurra.
- ✓ Ekimenaren izenean hitza hartuko du Nazioen Munduak.
- ✓ Manifestuaren irakurketa.
- ✓ Goierriko herrietako ordezkariak manifestua izenpetuko dute.
- ✓ Ondoren, Manifestua izenpetzeko aukera izango dute bertaratuek horretarako egoituko diren mahaietan.



**Iñaki
Murua**

Bat: iruditzen zait beharrezkoa sinis-
tea, bat eginez
gero, zenbat eta
zenbat gauza egin
lor ditzakegun. Bi:
iruditzen zait, jen-
deak hozki puntu
bat daukala auto-
determinazio eta
independentzia
hitzen inguruan.

Pentsatzen dut, mozorroa kendu eta herri
bati dagokion eta gauza daitekeen eskubide
bat bezala ikusi behar dugula, eta ez hain-
beste, Espainiak edo ez dakit zeinek eman
behar digun opari bat bezala.

Bestalde, Goierriko ekimen zabala, kirola,
kultura, politika... denak parte hartuta egiten
diren ekintzatan, perretxiku biltzea baldin
bada ere, interesgarria iruditzen zait.
Gutxiegitan biltzen gara horrelako gauzetara-
ko. Hutsune batzuk ikusten ditut, baina ea
horiek ere inguratzea lortzen dugun. Lekua
ere aproposa da. Igartza, Igaratza... errota...
pentsatzen dut hausnarrean egiteko gonbitea
ematen duela leku honek. Hausnar asko egin
beharko da aurrera egiteko.



**Jon
Gorrotxategi**

Jakina da Ezker
Abertzalea urteetan
ari dela herrien
eskubide gisa,
autodeterminazio
eskubidea aldarri-
katzen eta planteat-
zen. Betidanik
planteatu izan
dugu, Eibarra joan
edo Elgoibarra joan,
Telesoforok esaten

zuen bezala, Maltzagaraino gutxie-
nez elkarrekin joateko, gaur hemen
egin den simila beste bat izan da,
Larraitzaino sikiera elkarrekin, eta
horrekin nola ez dugu bat egingo!
Deigarria da, hasieran Idiazabaldik
hasita eta orain Goierrik horrelako
eredu bat planteatzea, eta gure
ustez Euskal Herri osorako adibidea
izan litekeen horrelako ekimen
batean parte hartzea ezinbestekoa
da. Poza ematen du, nola zenbait
jende, politikatik aparte, kulturalki
lanean hasita, nola lortu duen hain
oinarrikoak diren gauza batzuk,
politikatik kanpo eraman eta esku-
bideen alorrera eramatea, eta
horrek txalo handia merezi du.

#Gipuzkoa

lan
munduratzea

herrilan
eta azpiegiturak

teknologia
eta berrikuntza

enpresei
laguntzea

Krisiaren aurkako 2010 Plana

100 milioi euro

Gipuzkoan badugu Plana:

Inbertsio publikoa azkartzea,
enplegua sortzea eta gure en-
presei laguntzea, berrikuntza-
ren aldeko apustu irmoa dela
medio.

OBRA PUBLIKOA ETA AZPIEGITURAK

Inbertsio publikoa azkartzea, lurralde
osoak ahalmen handiko bide-sare ezin
hobea izan dezan.

ENPRESEI LAGUNTZEA

Estualditik ateratzeko, berregitura-
tzeko eta proiektu lehiakorrek susta-
tzeko neurriak bideratzea.

ENPLEGUA SORTZEA

Lan-munduan sartzen laguntzea zail-
tasun bereziak dituzten taldeei eta
enpresetako gizarte-balioak sustatzea.

TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

Zientzia eta teknologiako azpiegitu-
rak garatzea eta berrikuntzaren alde-
ko apustua egitea, merkatu globalean
lehiakortasun handiagoa izateko.

GIPUZKOA
zurekin, aurrera >



**Urtzi
Arrondo**

Idiazabalen atera zen plataforma bat Goierri mailara hedatzea, nik uste gauza interesgarria dela. Ekainaren 5ean Larraitzen jende ugari biltzen bada eta arlo gehienetako jendea biltzen bada, ekimen polita da. Aurrera begira ea eusten diogun.



**Patxi
Aierbe**

Idatzian oraintxe esan den bezala, langa pasatzeko iritsi dela uste dut. Ikusita gauzak nondik nora doazen, ea pixka bat esnatzen garen abertzaleok eta ea helburu batzuetara behintzat elkarrekin joaten garen. Muga bateraino behintzat elkarrekin egin dezakegu, eta nik uste derrigorrez eman beharrean gaudela pauso hori. Argazki oso polita izan da gaurkoa. Poztekoa gainera. Nik uste dut, gaurko egunean, Euskal Herrian aspaldian eman den argazkirik ederrena izan dela. Ea hau ibilbide luze baten hasiera bat den, eta ea eramaten gaituen, guk nahiko genukeen lekura.



**Jon
Agirre**

Bat egin dut, bide asko, agortuta ez, baina jendea etsipenean dagoelako eta uste dudalako ernamuin berri bat dela, eta ilusioa piztu dezakeela bai goierritarren artean. Eta hemendik aurrera askalo nora arte. Poza ematen du, iritzi politiko ezberdinak dauzkatenak, kulturaliki ikuspegi ezberdinak edo leku ezberdinetan gaudenak, bat egitea eta horrelako elkargune batean egotea. Ilusioa piztu dit, jendearengan esperantza minimoak eragin ditzakeelako.



Idiazabaldik, Eskoziara, K

2007-08 urteetan, Idiazabalen herri kirolaren inguruan biltzen zen ideia, joera, adin ezberdinetako jendearen gogoz gorpuztu zen autodeterminazio edo erabakitze eskubidearen aldeko Idiazabalgo herri ekimena. Idiazabaldarrek egindako bidea Goierri osora zabaldu nahi izan dute eta emaitzak lortzen ari dira. Ondorengo lerrootan, Idiazabalen hasitako ekimenaren errepasotxoia ikus dezakegu.

Larraitzeraino elkarrekin

Autodeterminazioaren gaia politikatik ateratzeko modua ikusi zuten idiazabaldarrek. “Gai hau jorrazteko zeuden esparru bakarrak politikoak edo politika ingurukoak izanik, hortik kanpo modu naturalagoan landu genezakeela pentsatu genuen. Garrantzitsuegia zela Nazio Batuen Erakundeak berak ere eskubide unibertsaltzat duen eskubide hori, politikoen esku soilik uzteko. Hortaz, ona zela herritarrok, jendeak, gai honen inguruan, gure hitzetan informatzea, hitz egitea eta hausnartzea”, diote idiazabaldarrek.

“Ados gauden horretan bat egin eta ahalik eta biderik luzeena egitea”, dute helburu. “Horretarako ohitura edo joera handirik ez zegoela ikusten genuen, alegia, bata Abaltzisketara joatekotan bada, eta bestea, berri, Txindokira, bakoitza bere autoan joan beharrean ez dakigula edo ez genekiela elkarrekin Larraitzeraino, sikiera, joaten. Eta guk horri buelta eman nahirik esaten genuen eta esaten dugu: “goazen Larraitza elkarrekin, behintzat, eta gero gerokoak”.

Eskoizian

2008ko Aste Santuan 100 euskaldun Eskoziara joan ziren dantza, herri kirol eta musika erakustaldiak egitera erabakitze eskubidearen lelopean. “Bidaia honek aukera eman zigun Eskoziako Parlamentuan sentsibiltate ezberdineko alderdietako jendea ezagutzeko eta elkarriketatzeko. Bertatik bertara ezagutu ahal izan genuen erabaki ahal izatearen printzipio demokratikoa nola bizi duten gureak baino tradizio demokratiko luze eta sakonagoa duen herrialde horretan eta irakas-



Kataluniara eta Goierrira

pen handi bat ekarri genuen handik, alegia, Erabakitze Eskubidea modu naturalean bizi dutela batzuek zein besteek, eskubide gisa, ariketa demokratiko gisa zalantzan jartzen ez duten printzipioa dela; batzuek zein besteek”, diote Autodeterminazioaren Aldeko Herri Ekimenekoek.

Katalunian

Autodeterminazio eskubidearen gizarteratze bide horretan hamaika ekitaldi antolatu ziren Idiazabalen “gero eta parte hartze handiagoz hornitzen zirenak eta elkarlan horrek Kataluniara eramane gintuen 120 lagun. Bidaia horretan ere gai hau lantzen ari den beste herrialde honekin ere harremanak sortzeko, uztartzeko, elkarri erakutsi eta ikasteko aukera eman zigun. Hura ere joan eta etorriko bidea izan zelarik, izan ere, Kataluniako kultura, folklorea eta erabakitze eskubidearen inguruko taldeen hitzak izan ditugu Idiazabalen 2 urte hauetan zehar behin baino gehiagotan”, gogoratu dute.

Idiazabaldik Goierrira

“Elkargune honek, bertan

denok irabazten dugun elkar-gune honek, herrian sortu duen ilusioa Goierrira zabaltzeko modukoa zela pentsatu genuen. Idiazabal bezalako herri txiki batek halako giroa sortzeko gaitasuna izan badu herrian, Goierrira zabalduta are handiagoa izan baitaiteke”.

Gauzak honela, “bakoi-tzak ditugun itxituretatik irten, langa pasa, eta elkarrekin egin dezakegun bide horretan erabat sinetsita, iazko abenduan, Goierriko sentsibiltate ezberdineko norbanako askorengana jo genuen bilera batera gonbidatuz eta guk ordura arte egindako lana aurkezteko asmoz. Begi onez ikusi zuten aurreko 2 urteetan egindakoa, eta beraz, guk proposamen zehatza luzatu genuen: egin dezagun Goierri mailako Autodeterminazio edo erabakitze eskubidearen aldeko gune zabal eta irekia. Bilera hark, beste bat ekarri zuen, eta hurrengoak beste bat... Gaur egun Goierri mailako taldea dagoeneko badelarik”.

Ibilbide honen emaitza, maiatzaren 22an, Beasaingo Igartza jauregian islatu zen.



Asier Sarriegi

plataforma ezberdinekin eta ea nonbaitera iristen garen. Gure nahia Txindoki puntu-raino iristea izango litzateke, baina ikusi egin beharko da zein predisposizio dagoen alde guztietan.

EAn beti egon gara autodeterminazioaren alde eta herri ekimen egokia iruditu zaigu eta aurrera begira ea eman dezakeen zerbait honek. Hasiera batean, ahal dugun herri guztietan hasi gara lanean, sortu diren



Joxe Ramon Agirre 'Marron'

tugu, izugarrizko indarra egingo dugula eta horrek dudarik gabe, bide berri bat irekiko digula. Itxaropentsu nago. Uste dut gizarateak berak eskertuko duela ekimen hau. Etsipen puntu batekin bageunden, eta uste dut, denok, abertzaleok, Euskal Herriarengan sinisten dugunok, hau premiazkoa dugu helburu horietara iristeko. Oso pozik nago.

Azken hamarkada hauetan jabetu gara, gure arteko diferentzia edo jarrera horrek, kaltea ekarri digula. Iruditzen zait, jarra aldaketa honek, hau da, amankomunean ados gauden balio horiek batzen baldin badi-



Juan Joxe Agirre

kuntza bat daukagu, besteek ez daukatena. Hortik hasi behar da. Herenegungo Hitzan ikusten nuena, penagarria da: Urretxun %23k bakarrik hitz egiten dutela euskaraz. Niretzat autodeterminazioa eta independentzia hortik hasi behar da, hizkuntzatik. Hori da aberastasunik handiena autodeterminazioa lortzeko.

Batetik, autodeterminazioa da, historiari demonstratuta daukana. Guk eskubidea daukagu autodeterminatzea eta gehiago ere. Eta beste aldetik, muga eta ardatza, beste inork ez daukana, hizkuntza da. Oinarria. Guk hiz-



Arkaitz Iurrita ormaiztegiarra

Mendia: zaletasuna eta ogibidea

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak
Teorikoa 5 egunetan
CAP baimen profesionala

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es


SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Ormaiztegiarra Jacan bizi da. Hasiera batean zaletasun soila zena, ogibide bihurtu da gaur egun. Neguan eta udan, mendian egin daitezkeen jarduera ezberdinak erakusten ditu. Azken bi urteetan, udazkenean, Antartika aldean ibili da, zientzielariei laguntza teknikoak ematen. 31 urte ditu.

Txikitatik joan izan da Arkaitz Iurrita Jacara eskiatzera. Ikasketaz, soin heziketako irakaslea da, baina momentuz, Jacan, Pirinioetako mendietan aurkitu du ogibidea.

Urtaroaren arabera, eginkizun ezberdina izaten du ormaiztegiarrak. Urtea hiru zatitan banatzen du: neguan, elurretan lan egiten du, eskiatzen erakusten; udan, mendiko jarduera ezberdinak erakusten; eta udazkenean, Antartikara joaten da hainbat zientifikorentzat gidari lana egitera. Lanaz gain, aisirako astia ere hartzen du mendian: tartean, eskalatzea. Patagonia alderako espedizioa du orain helburu. Ritz Roy eskalatzeako helburua baitu, beste bi eskalatzaileekin batera.

Urtea hiru zatitan banatzen duzula esan diguzu. Negutik hasita, neguan zer egiten duzu?

Eski ikastaroak ematen ditut. Jaka bertako gazteen eski taldea ere entrenatzen dut, lehiaketa mailan. Astelehenetik ostiralera, ikastaroak; eta astebukaeretan entrenamenduak.

Zuek zeuk eskiatzen al duzu? Lehiaketetan parte hartzen al duzu?

Garai batean, eski lehiaketetan parte hartu izan nuen, baina behin lanean sartzen zarenean, gustatzen zaizuna egiteari uzten diozu. Beste txip bat da. Niri eskiatzea asko gustatzen zait baina azkenean, orain, ogibidea da. Jendea gozatzen ari denean, ni lanean ari naiz. Mendiarekin ere berdin gertatzen da: mendira lanera zoazenean, beste batzuentzako zoaz lanera. Beste gauza bat da, zuk hortaz gozatzen dakizun ala ez. Egun batzutan asko gozatuko duzu eta beste batzuetan ez. Baina lana da. Ordaintzen dizuten momentutik, nik esaten dudana bezala, zerbait txarra badauka.

Elurrik ez denean, uda partean, zer egiten duzu?

Mendiko jardueretan eta kainoiak jaisten egiten dut lanik gehien. Eskalada pixka bat ere bai. Nagoen enpresan, mendian egin daitezkeen guztia eskaintzen dugu. Nik gehiena, mendia eta errekek egiten ditut. Ferratak ere bai. Modan dauden gauza guzti horiek. Puenting-a...

Mendia modan al dago?

Nik uste dut jende gehiago joaten dela orain.

Mendiko istripuak ere gehiago gertatzen dira.

Istripuak proportzioan doaz. Gehiago gertatzen dira, bolumen gehiago dagoelako. Errepidean bezala da.

Udazkenean, berriz, Antartikara joan zara azkeneko urteetan.

Antartikako proiektua bi fasetan banatuta dago, proiektu zientifikoen arabera. Lehenengo fasean proiektu batzuk daude eta bigarren fasean beste batzuk. Gu, zientzilariei, laguntza ematera joaten gara. Gure lana da, joan behar duten lekura joateko bidea erraztea eta segurtasunarekin egitea. Lehenengo urtean adibidez, utarrilean eta otsailean joan nintzen eta iaz, azaroan eta abenduan. Aurten agian ez goaz. Ez omen dago dirurik. Nik joateko esperantza daukat baina aurreko astean Bartzelonan bilera bat eduki genuen, Consejo Superior de Investigación Cientificasen(Cesic), eta ez omen dago dirurik oraingoz. Beraz, proiektuen arabera, neguan edo udazkenean joaten gara. Zientzilaria eskatzen du.

Mendia lanbidea izateaz gain, zaletasuna ere baduzu.

Adibidez, Riglosen, rally-eskalada batean parte hartu eta irabazi egin duzu.

Parte hartzen dudana lehenengo lehiaketa da. Guri, eskalatzea, izugarri gustatzen zaigu, baina lehiatzea ez. Eskiatzen lehiaketa askotan parte hartu dut baina eskalada beste modu batera ikusten dut. Ez daukat lehiaketetan parte hartu beharrik gustura sentitzeko.

Riglosen asko eskalatu dugu. Aurreko urtean, aurten nirekin parte hartu duenak parte hartu zuen eta esan zidan aurten nirekin aterako zela. Eta biok atera ginen. Baina ez dut pentsatzen eskalada hortik bideratzea. Azkenean, lagunekin ondo pasatzea da. Hori bai, lehiaketaren momentuan oso gustura sentitzen zara.

Baina hori baino askoz ere gehiago da eskalatzea. Urtean behin egiteko ondo dago, baina hori ez da gure helburua. Helburu mailan, eskaladan, helburu asko ditugu. Baina ez bide horretatik.

Zer da rally eskalada?

Estatu mailan, Alicanten hasi ziren zen, Calpen, orain dela 4-5 urte. Izen handia hartu du eta pentsatu zuten ligaxka bat egitea eta hiru lehiaketa egiten dira. Jendea biltzeko egun bat da. Mendi martxak bezala. Horrelakoetan jendeak lehiatzen bukatzen duen bezala, hemen ere bai. Helburua ondo pasatzen da baina 25 pertsona askatzen dituzten momentuan, lehia bihurtzen da. Bikoteka hartzen da parte.

Pentsatzen dut, denborarekin, jende askok hartuko duela parte. Riglosen, gu bakarrik ginen euskaldunak eta Euskal Herrian jende askok eskalatzen du. Izugarria da. Goierrin ber-



Errehabilitazioa

Masaje terapeutikoa

Kirol masajeak

Lunbalgiak eta ziatargiak

Drenaje linfatikoa

Kinesiologia

Naiara Gómez Larrea
Kol.zkia.: 1466

Ordutegia:
astelehentik
ostiralera
9:00 - 13:00
15:00 - 20:00

Andraitz kalea, 2 ezk. ZEGAMA Tel.: 943 80 15 32



“Antartika beste mundu bat da, izugarria da”



Zein lan egiten duzue Antartikan?

Zuek irudikatzeko: hura hotel bat bezala da. Gu hoteleko langileak izango ginateke. Zientzialaria hotelera joango da eta hotel horrek hainbat zerbitzu eskainiko lizkioke. Zientzialaria etortzerako prest egon behar da. Gu talde teknikoaren barruan gaude. Bi talde bezala gaude eta gure lana da zientzialariei lana erraztea. Zientzialaria etortzerako prest egongo da eta berak nahi duen lekura eramango dugu. Bestela, denetik egiten dugu: zaborra erre, gelak garbitu...

Sherpak al zarete?

Ez. Pisua berez, zientzialariek eramango beharko lukete. Eskiekin edo raketekin joaten zara batetik bestera eta gu ondo bagoaz eta zientzialaria ez hain ondo, sherparena egiten duzu. Baina ez daukazu zertan sherparena egin beharrik. Lana polita da. Zientzilaria arabera, oraindik politagoa.

Zuk ere ikasi egingo duzu.

Batzuk, egiten dutena erakutsi egiten dute; parte hartuarazi egiten dizute. Beste batzuek, ez. Bakoitzaren arabera dago.

Zer moduzko parajea da hura?

Politak dira. Lehenengo astea, izugarria da. Beste mundu bat. Gero, pixka bat monotonoa bihur liteke. Lehenengo aldiz joaten zarenean, ikaragarria da, zirraragarria. Beste mundu bat.

Bizitza handia dago, animalia asko. Horrek asko pozten zaitu. Gu itsasertzean egoten gara, eta baleak azaldu direla, orkak direla... egunero zer ikusiko zain egoten gara. Animalia pilo bat ikusten ditugu. Itsas leopardoak pinguinoak jaten... Alde horretatik izugarria da. Bi zodiac ditugu eta baleak azaltzen direnean, baleak ikustera joaten gara. Bixigarria da. Bestela, ez da han bizitzeko lekua.

Nik uste, izugarrizko zortea dela hara joan ahal izatea. Ordainduta oraindik gehiago. Hego Amerikatik joaten gara eta Ushuaiako prezioak ikusten jartzen zara eta ezinezkoa da hara joatea. Ez dakit berriro joango naizen, baina han egon naiz eta zorionekoa naiz oso.

Lanari esker beraz, aukera izan duzu Antartika ezagutzeko.

Lanari esker izugarrizko lekura joan naiz. Nik uste dut, joateko, ez dela leku zailagorik egongo. Logistika aldetik, itsasuntzia hartu behar duzu, ezin du edozein itsasontzik sartu... Adibidez, Vinson mendia dago. Logistika aldetik, baimenak lortzeko, oso zaila da. Guri dena eginda ematen digute eta alde horretatik gustura.

Igo al duzu Vinson hori?

Ikusi ere ez dugu egin. Izugarri handia da Antartika. Uste dut, Europa bezain handia dela. Guk, %0.001 ezagutu dugu. Gu irla batean gaude eta irlak 800 metro karratu dauzka. Hara joateko aukera izatea, handia da. Baina ni hara lanera noa. Beste gauza bat da lagunekin joan eta leku ezberdinak ezagutzea. Nik ezin dut hori egin han. Hori da daukan alderdi txarra. Baina horregatik ordaintzen didate. 6 mendizale gaude han eta egia esanda, zaila da tentazioari eustea.

Kirol eskalada gustatzen zaigu baina gehienbat, pareta Pirineoetan dauden handiak.

tan eskalatzaile asko dago. Nik uste dut, denborarekin, ezagutu ahala, jende asko hasiko dela joaten.

Riglosekoa 12 orduko rallya zen. Bide ezberdinak egoten dira, eta bide bakoitzak zailtasunaren eta luzeraren arabera, gehiago edo gutxiago puntuatzen dira. Araudi bat dago, batez ere minik ez hartzeko. Helburua, ahalik eta puntu gehiena lortzea da eta norberak erabakitzen du zein bide aukeratu. Bukaeran, puntuazioa ematen dute. Adibidez: puntuaziorik handiena zuen Popeye bidea hartuta zegoenez, guk ez genuen hura egin. Jakina, atzetik joanez gero, frenatu egiten da-eta. Zailen hori izan ezik, beste zailenak egin genituen.

Izotzetan ere eskalatzen al duzue?

Lehen, denetik egin nuen, baina orain harria gehiago, lanagatik. Neguan elurretan lana egin beharra daukat eta izotzetan eskalatzeko ez daukat denborarik. Gehienak, paretak gustatzen zaizkit. Zenbat eta handiagoak hobe. Askotan, pareta handiak egiteko izotza ere eskalatu behar duzu. Kirol eskalada gustatzen zaigu baina gehienbat, pareta handiak gustatzen zaizkigu. Pirineoetan dauden pareta handiak. Alpeetakoak oraindik gehiago. Denbora librea daukadanean, eskalatzea gustatzen zaizkit. Bilatzen ditugunak, harrizko pareta handiak dira. Gustatu dena.

Ez litzaideke mendia, bizitza, lehian bihurtzea gustatuko. Menden beste gauza batzuk bilatzen ditut.

Azken aldian menditik

Patagonia Fitz Roy espedizioa

Patagonia-Fitz Roy espedizioa ari zarete prestatzen. Noiz izango da?

Hasiera batean, oartzuar bat eta billabonatar bat zihoazen. Beti ilusioa handia egin izan ohi didan bide bat egitera zihoazen eta gonbidatu egin ninduten. Izugarritzko pareta da Fitz-Roy. Horrelako bideak, leku gutxitan egongo dira. Beraiek bi hilabeterako doaz baina nik, lan kontuengatik ezin dudanez, denbora gutxiagorako joango naiz. Azaro bukaeratik urtaril bukaera artean joango dira. Nire asmoa da, abendua edo urtarila, bietako bat.

Ez egiteko aukera handia daukagu. Baldintza perfektuak eman behar dira egin ahal izateko. Batez ere eguraldiagatik. Han oso eguraldi txarra egiten du. Baina arriskatu egingo gara. Dirulaguntza ere eman digute eta horrek asko laguntzen du. Ea zer iritetzen den. Lortuz gero izugarria izango zen.

Ez egiteko burua prestatuta eraman beharko duzue beraz.

Gutziz mentalizatuta goaz. Aukera asko daude, ez igotzeko. Beka eman zigutenean ere garbi utzi genuen. Lehenengo Patagonia delako. Bost urte jarraian, eskalatzaile oso onak joan dira baina eskalatu gabe etorri dira, eguraldiagatik. Zortea eduki behar da eguraldiarekin. Behin eguraldia lagun izanda, oso ondo eskalatu behar da.



Haizea ere arriskutsua izaten da, batez ere behekoan, sokak katiatu daitezkeelako.

Mendia ikusi ere egin gabe etortzeko aukera badago. Patagonian, pazientzia

handia behar da. Eguraldi onaren zain egon behar da. Baina badu beste abantaila bat: hego hemisferioan egonda, eguna oso luzea da eta eskalatzeko ordu asko daude.

Lehia albisteak iristen dira batez ere.

Nik uste dut dena den, hor dabilzan askok, beraiek lehia bilatu gabe, kanpotik bilatzen dietela komunikabideek. Mendia beti kirol bat baino gehiago izan da. Guk hala ikusten dugu behintzat. Eta nik uste jendeak ere horrela sentitzen duela: kirola bai, baina beste balore batzuek ere bai. Lehia sartu dezakezu, baina balore horiek apurtu gabe. Baina balore horiek apurtzen hasten diren momentuan, xarma guztia galtzen da.

Munduko txoko ezberdinetako mendietan ere egon zara.

Urtero saiatzen gara kanpora eskalatzeraz joaten baina ez nioke espedizioa deituko. Ahalik eta era sinpleenean joaten gara. Alpeetan, Italian, Suizan, Perun, Pakistanen, Marokkon, Yosemite... izan gara. Pareta politak daudela esaten diguten lekura joaten saiatzen gara. Himalayara behin joan ginen. Baina gutxi eskalatzen duzu, behar duzun logistika eta diru guztirako. Beraz, leku merkeagoak bilatzen saiatzen zara.



zuhatzki
Zurgindegia

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurrita.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ


Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxe: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa **20491 LEABURU**

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Etnaia 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate



Ordizia

Poltsikoko ikuskizunak

Ekainak 4, ostirala:

22:15ean: Garikoitz Mendizabal (txistua) eta Xabier Zabala (teklatuak). Barrena Kultura-etxean. Txistu birtuoso eta sentimenduak bat eginik. Betikoa eta betirako. Programa honetan, orain bi urte kaleratu zen 'Bihurrikeritan' diskako txistu bakarlarientzako doinuak eta Xabier Zabalaren beste doinu berri batzuk uztartzen dira.

Ekainak 11, ostirala:

22:15ean: Helduentzako magia. Angel Perez. Barrena Kultura-etxean. Magia eta umorea bateratzen duen ikuskizuna izateaz gain, ikusleek ere parte hartzeko aukera izango dute.

Zaldibia

Gaztetxearen IV. urteurrena

Ekainaren 4an, Gaztetxearen IV. urteurrena ospatzeko kontzertua izango da Zaldibiako Antzokian, gaueko 10,30etan. Bi talde arituko dira: Deskontrol eta Harrika.

Lazkao

'Piano bat bertsotan'

Ekainak 4, ostirala:

21:30ean: 'Piano bat bertsotan' kantu ikuskizuna eskainiko dute Azeria kultur gunean. Sarrera dohainik.

Musika eskolako saioa

Ekainaren 11n, arratsaldeko 6etan, plazako oholtzan, Lazkaotxiki musika eskolako ikasleen emanaldia izango da.

Legorreta

Korpus eguna

Ekainaren 5ean, Korpus eguna ospatuko dute legorretarrek.

09:30ean: Diana Legorretako Musika Eskolako ikasleekin.

10:30ean: Haurren Herri Krossa.

11:30ean: Helduentzako XXXII Korpus Krossa.

13:00etan: Krossaren sari banaketa.

18:00etan: XXI. Ardo dastatze txapelketa.

18:30ean: Udalak ardoa banatuko du herritarren artean.

19:30ean: Usadiozko Meriendak Plazan.

23:00etan: Karaokea Plazan.



biok
zerbitzuak

kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Urdaneta, 7



ASEPLAN S.L.
AHOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA



txekin
www.txekin.net

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia
www.ikaskide.net

UDA 2010

LEHEN HEZKUNTZA, DBH, BATXILERGOA:
Errepasoa, errekupeazioak, datorren kurtsorako prestakuntza

UNIBERTSITATE MAILA (MU): Errekupeazioak, prestakuntza

MEKANOGRAFIA: Ikastaro trinkoa

TAILERRAK: Irakurmena, idazmena, kalkulua eta matematika

INGELERA: Ikastaro trinkoa

Informazioa eta izen ematea: Joan Iturralde, 5 solairuartea - BEASAIN
943 160 120 - 685 722 403 - 675 006 462

Autowag



☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN

Beasain

Eskalada eta rafting irteera

Arrastaka Mendi Taldeak antolatuta, ekainaren 5ean eta 6an, irteera izango da Huescako Riglos herrira. Bertan eskalatzeko "via ferrata" bat igoko dute eta ondoren Murillo de Gallego herrian dagoen Gallego ibaia rafting eginez jaitsiko dute. Irteeran parte hartzeko beharrezkoa izango da mendiko federatu txartela izatea eta ekainaren 1ean 19:30ean Antzizar kiroldegian egingo den bilerara joatea.

Zegama

Ikasturte amaierako emanaldiak

Ikasturtearen azken txanpan sartuta, Zegama, Segura eta Zeraingo TOBERA Musika-eskolak hainbat jendaurreko emanaldi ditu esku-artean:

Ekainaren 15ean: kontzertua Zegaman, webgunearen bitartez egindako jokoaren zozketa eta afari-merienda.

Ekainaren 16an: kontzertua Seguran.

Ekainaren 17an: dantza-saioa. I

Ekainaren 23an: San Joan bezperako suaren inguruan dantzariak eta Txistu-banda Zegaman.

Ataun


Kontzertuan ekainaren 4an

Ordiziako musika eskolako kantu ikasleen kontzertua izango da ekainaren 4an, arratsaldeko 7etan, San Martingo elizan.

Zerain

Gipuzkoako bolo txapelketa

Ekainaren 6an, emakume, beterano, jubenil eta infantilen Gipuzkoako bolo txapelketa jokatu da Zerainen. Orduetgia: goizez 10,30etatik 11,30etara eta arratsaldez 4,30etatik 5,30etara.



NELSON BARBOSA
ERREFORMAK
Gremioen koordinazioa
tel.: 687 837 011 Unzurruzaga, 9 behea **SEGURA**

Olagi Urte guztian zabalik
Sagardotegia Sagardotegiko menua
Jatetxea Karta
© 943 88 77 26 **ALTZAGA**



X Jabekideen komunitatea osatzea
 X Komunitateen kontabilitatea
 X Akten idazketa
 X Aurrekontuen eskaera
 X Aholkularitza legala
 X e.a.

AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599
Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

disek **ibaiondo** altzariak

- barne diseinua
- dekorazioa
- sukaldeak
- proiektuak

Katea, 5 - Antzizar auzoa
BEASAIN
tel.: 943 16 40 40
faxes: 943 16 47 47
mug.: 639 631 640
www.mueblesibaiondo.com

m **Mendizabal, C.B.**
ITURGINTZA - BEROGINTZA
Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ez. ZALDIBIA



Ezkioko eskolameak 1957. urte inguruan

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Mari Luz Aranburu Idiakex (Urruti), Gregoria Idiakex Korta (Goenetxe), Maria Rosario Mendiguren Etexzarreta (Zelaa), Begoña Ettxeberria Aranzadi (Matxinbentako Korostarzu baserrikoa), Abelina Llorente (maistra), Antton Idiakex Korta (Goenetxe), Iñaki Idiakex Korta (Goenetxe), Herme Ugarteburu Gorrotxategi (Pagoaga), Joxe Mari Zaldia Korta (Plazategi), Migel Azurmendi Oiarzabal (Argindegi-Etxeberri) eta Mikel Idiakex Korta (Goenetxe)

Lurrean eserita: Fermin Lasa Aranzadi (Barberoene) eta Balentin Lasa Aranzadi (Barberoene).

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAIK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA



RENAULT LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxe 943 88 60 44
BEASAIN

ZUGAZTIBI


AHOLKULARITZA



zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxe: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA



MUJKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxe: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

PSIKOLOGI KLINIKOA

Argi Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS-420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

ONEIRICO (estudio)

Barne Diseinua - Stand
Produktua - Eszenografia

+ 34 687 413 379
info@oneiricoestudio.com www.oneiricoestudio.com



Goierritarra aldizkariaren gehigarria

**MODA
2010
UDA**





Marinel arrastoak

Arropa diseinu etxe bakoitzak bere moda joerak jarraitzen badi-tu ere, Lazkaoko Ipotx dendako Luisi Izquierdok esan digunez, badaude denetan errepikatzen diren hainbat joera. Esate bate-rako, bai nesketan eta bai mutiletan, marinelen betiko arrasto txuri-urdinak moda-modan daude. Mutiletatik hasiko dugu erre-pasoa.

Mutilak

Mutiletan jantziak gero eta koloretsuagoak dira, gero eta kolore gehiago sartzen ari dira. Gris eta txuri zaleak diren markak ere, datorren denboraldirako kolore ezberdinak sartuko dituztela aurreratu digu Ipotxek.

Prakei dagokionean, piratei pixkanaka agur esaten ari gara, eta belaunetik gorakoak gero eta indar gehiago hartzen ari dira. Ohiko bakeroez gain, arrastodun eta koadrodun prakak aukeran dituzte gure mutikoek.

Kamisetetan, marinelen arrasto txuri-urdinak dira nagusi. Unibertsitarioen zenbaki eta letra handiak ere bai. Aurten ere bai, baina datorren urterako, indarrean datoz koadrodun alkan-dorak.

Freskoxeago egiten duenerako, izerditakoak edo sudaderak dituzte modako mutilek.

ipotx
haur eta gazteentzako moda



Hirigoien, 8 • LAZKAO • 943 08 79 12

Neskak

Helduen modan oinarritutako moda izaten da neska txikiaren modaren joera eta horren arabera, soinekoak moda-modako daude.

Praketan, estu-estuak edo pitilloak deituak indartsu daude oraindik ere, nahiz eta pixkanaka zabaltzera joateko joera gero eta indartsuago datorren. Bakero ezberdinak edo txuriak. Tiro luzeko prakak ere gustuko dituzte neskek. Buzoa ere sartzen hasi da, nahiz eta kostaldean gehiago ikusi horrelakoak.

Hori bai, bero egiten duenerako, praka motz-motzak jarraitzen duten modan. Piratak ere bai. Eta oraindik ere armairuan ezinbesteko jantzia, legging-a da.

Gainerako, denetik baina, marinelaren arrastoak, loreak, txuria... dira nabarmenenak. Uda partean beltzak ez du halako arrakastarik eta jendeak kolore biziagoak aukeratzen dituzte. Prakak bezala, kamiseta estuak, entailatuak, gorputzari itsatsiak.

Txikienetan, jantzi oso koloretsuak oso ondo saltzen dira.

Freskoxeago egiten duenerako, betiko txaketatxoak eta "toreritak" deiturikoak daude jertseak modan, beti ere kolore neutro samarrak.

Osagarriei dagokionean, neguan bezalaxe, ularra ezinbesteko osagarria dugu. Neskak, tiradun kamisetarekin batera, ularra lepoan dutela ikustea ohikoa da aurtén.

Burua babesteko nesken artean biserak gero eta gehiago erabiltzen dira, eta gero eta aukera handiagoa dago.



JOSUNE
EDERGINTZA ZENTROA

Tel.: 943 882 888

E-posta: centrojosune@yahoo.es
J.M. Barandiaran plaza, 3 ORDIZIA

ZERBITZUAK

AURPEGIKO ETA GORPUTZEKO
TRATAMENTUAK

MIKROPIGMENTAZIOA

FOTODEPILAZIOA

FOTOAKNEA

MANIKURA ETA PEDIKURA

MAKILAJE BEREZIAK

Soinekoak

Luzeagoak, laburragoak, gehiago edo gutxiago agerian uzten dutenak, hippiagoak, jantziagoak, bakarrik janzteko, galtzekin janzteko... Era guztietako soinekoak dira aurten ere udaberri-udako jantzi erregea. Kasaka luzeak ere bai. Migdala dendako Maialen Olanok horixe ziurtatu digu. "Orain dela ia hiru sartu zen tendentzia hau eta egia esateko, nik denda ireki dudanetik gehiena irauten ari den tendentzietako bat da. Aire ezberdin asko hartzeko modua ematen du soinekoak".

Dena den, "zerbaitek irauten duenean, jendea beste gauza batzuk eskatzen hasten da bat-batean, soinekoak asko izango ditu eta. Kolore beltzarekin berdina gertatu da. Dena beltza daukagu eta beltzik ez du nahi jendeak. Nik uste dut, soinekoekin berdina gertatuko zaigula. Berriro joko dugu gona eta galtzetara. Datorren denboraldirako soinekoak izango dira baina aldatzen hasiko da pixkanaka, gona eta galtzak badatoz".

Praketan ez dago aukerarik handirik aurten, baina badatoz. "Galtzarik apenas aurten. Eta datozen prakak, tiro altu-altukoak eta zabalak dira. Dena den, galtza estu-estuak ere bai oraindik, tiro bajuarekin, gazteek eskatzen dutelako".

Kolorea


Koloreari dagokioenean, betiko beltzaren orde, koloreak indarra hartu du. Moda koloretsuagoa dugu aurten. "Aurten, askoz

ere kolore gehiago saltzen ari gara. Ez dakit, berez jendea triste dagoen eta kolorea nahi duen alaitzeko... edo behar bada, momentu txarrak diren, daukazun gauzetan gastatu partez, beltza beti daukazulako, jendea zerbait ezberdinaren bila dator".

Zein kolore? "Urdin oso fuertekak datoz, gorria, horia, arrosak, txuri kolore pastelarekin nahastuta, more suabea ere bai". Hori bai, oihaletan, naturalen aldekoa da Maialen Olano. "Guk ahal dela, oiha naturalak erabiltzen ditugu. Gehiago gustatzen zaizkigu. Azalak ere arnasa gehiago hartzen du eta nahiago dugu josteko garaian. Beste kalitate bat da, beste goxotasun bat azalerako".

Fularrak

Soinekoekin batera, fularra da aurtengo ezinbesteko osagarria. "Aurten oso modan daude, baina beti asko edukitzen ditugu, geuri asko gustatzen zaizkigulako. Askok erabiltzeko pieza bat dela iruditzen zait. Edozein egunetan, freskoago egiten du eta askotan txaketa bat jarri beharrean, fular bat, gaizki samar jarrita, oso ondo gelditzen da. Poltsan sartuta edozein lekutara era-

Emaztegaiak · Ezkontzetarako arropa · Egunerorako jantzi ugari · Osagarriak

Diseinu propioak · Lanak neurrira · 36 tailatik infinitora

Migdala

Tel. 943 027 363 · Oriamendi, 29 · 20200 Beasain · Gipuzkoa



man dezakezu, askotan ez da jakiten zein eguraldi egin behar duen-eta. Edo aire egokitua dagoenean ere aukera ona da, eztarria babesteko. Urte guztirako osagarria da. Beste ikutu bat ematen du fularrak, oso politak gelditzen dira. Soineko berdina izan arren, osagarriak aldatuta, guztiz ezberdina gelditzen da. Bezeroei laguntzen diegu, soineko bakarrarekin, 3 edo 4 ezkontzetarako izatea, osagarriak aldatuta”.

Joeretatik haratago

Dena den, modako joera orokorretatik haratago, norbera bere buruarekin gustura egotea da garrantzitsuena. Maialen Olano arropa diseinatzailea ere bada eta modako joeratik alde egitea gustatzen zaio. “Gure bezeroen eta gure gustuen arabera lan egiten dugu. Tendentzien kontra ere gauza dezente egiten ditut. Neronek egiten ditudan jantzietan, tendentzien kontra joaten naiz. Oihala on bat aukeratzen badugu, horrek prezio bat dauka eta nik ez dudana nahi da, jantzi hori sei hilabeteetan ibili eta bertan uztea. Atenporala izatea nahi dut, nahi duten guztian erabiltzeko egokia izatea. Hemendik 10 urtera jantzi gero, ondo dagoen gauza bat izatea.

16-80 urteko emakumezkoen artean, izugarritzko aldea dago. Beraz, denentzako lan egiten du Maialene. “Gauza klasikoak ere beti eduki behar dituzu. Ni saiatzen naiz, ahalik eta abanikurik zabalena eskaintzen. Dendan sartzen denari, gustuko zer-bait eskaintzea da gure helburua”.

Gero eta moda jarraitzaile gehiago

Ia 10 urte daramatza Maialen Olanok modaren munduan eta urte hauetan guztietan, alderik nabaritu du: “neska gazteak, 15-16 urtekoak, asko jantzen da. Gure garaian, gehiegi prestatzen zena ez zegoen hain ondo ikusia, eta gaur egun, alderantzizkoa da. Eskolara joateko ere goitik behera prestatuta joaten dira, nola gainera! Gogo handia daukate modaren munduan sartzeko eta gauza berriak probatzeko. Aldaketa izugarria egon da denbora gutxian. Kalera begiratu besterik ez dago”.

Mutiletan ere ikusi du aldaketa. Eusko Jaurlaritzako programa bati esker, ikastetxez ikastetxe ibili da Maialen Olano eta mutilek modaren inguruko interes handia azaldu dutela dio.

Guapa al nago?



Ness
moda eta osagarriak
ORDIZIA

ttipi
ttapa

umeen arropa denda

orain ttipi-ttapa outleta

Santa Maria, 35 eta Santa Maria, 18
ORDIZIA
tel.: 943 886 901

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

Tel.: 943 16 22 56 Iturtxo, 5 ORDIZIA

Ileapaindegia

- Ileko tratamendu guztiak
- Extentsioak
- Ileko osagarriak
- Kolore eta aukera zabala
- Ile-mozte eta kolore pertsonalizatuak

Edergintza

- Capuccini - Alquimia
- Aromaterapia tratamenduak: aurpegia eta gorputza
- Indiba berreskuratzaila: aurpegia eta gorputza
- Depilazioa, solariuma





Ile luzea: kixkurra eta txirikordak

Ile luzea modan da azkenaldian eta udaberri eta uda honetan ere horrelaxe izango da. Ile luze kizkurak eta txirikordak nabarmenduko dira aurtengo udaberri-udan. Bildutako ilearekin txirikordak, erdi txirikordak eta xerloak egingo dira, eta ukitu freskoa emango diote udako orrazkerari. Bestetik, kopeta adatsak eta bolumenez eta uhinez beteriko XL adatsak ikusiko ditugu. Hala ere, ile motz eta geometrikoak ere itzuliko dira.

Koloreei dagokionean, ilehori pastelak, arrosakarak eta ilehori platinoak moda-modan izango dira aurtengo denboraldian. Ausartenean, adats handiko ilea izanez gero, oso kizkurtutako arrosakarak eta ilegorri laranjarek bolumen handiko kopeta-ilearekin konbinatuko dituzte.

Klasikoegoentzat, berriz, gaztain koloreko ilea nabarmenduko da.

Aurpegia, naturala

Beroak makillaje gutxiago eskatzen duenez, makillaje naturalen garaia da. 80ko urteetako moda datorkigu gogora: neskak begiak ketu ukituko makillajearekin zihoazen garaiak. Hala ere, kolore argiak nabarmenduko dira: arrosa eta mertxika koloreak masail eta begietan, eta gauean, ketutako ortzadarra. Ezpainak, arrosak, fuxiak, gorrixkak eta laranjakarak. Bekainek izango dute protagonismo berezia. Ez dira lerrokatutako bekainak ikusiko, ezta bekain meheak ere.

berriz

Kale Nagusia, 8
BEASAIN

Hondarribi, 25
Hondarribi, 30
DONOSTIA



ume jantziak
puerikultura

Nafarroa etorbidea, 4 - BEASAIN
Tel.: 943 88 71 94
unanue@unanuebeasain.com



Garagartza, 9
ORDIZIA
Tel.: 943 88 46 62

San Inazio, 6
BEASAIN
Tel.: 943 16 21 35

Modako arropa eta osagarriak

(Beasainen haurdunen arropa ere badugu)

elorri

ESTETIKA ZENTRUA



Aurpegiko tratamenduak

Gorputzeko tratamenduak

Laser zerbitzuak

Solariuma

Makilajea

urdaneta
oianguren



OIANGUREN BHI

ORDIZIAKO IKASTETXE PUBLIKOA

Haurren mundura
gerturatzen

Altamira Auzoa z/g Tfnoa.: 943 880 862
Faxa: 943 164 121 www.oianguren.net

Etorkizunerako
prestakuntza
ezin hobea
jasotzen:

- > Lan mundua:
Irakaskuntza
Haurtzaindegia
Ludotekak...
- > Unibertsitatea:
Hainbat lizentziatura
eta diplomaturako
sarbide zuzena.

HAUR HEZKUNTZA

(GOI MAILAKO
HEZIKETA ZIKLOA)

Jolasen
bidez
ikasten

Iraupena:
2000 ordu
(2 ikasturte)



AURREMATRIKULA EPEA: maiatzaren 31tik ekainaren 11ra